

2025/2712 DEKRETUA

Hernani, 2025eko azaroaren 13a.

Hernaniko Udalaren 2025eko aurrekontua gauzatzeko oinarrien 11. puntua aintzat harturik, eta behin Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 75, 75.bis eta 75.ter artikulua azterturik, Hernaniko Udalak betetzen ditu arduraldiak dituzten hautetsien eta behin-behineko enplegatu publikoen ordainsariei dagozkien muga guztiak.

Era berean, aztertu ditugu 2023rako Estatu Aurrekontuen 31/2022 Legearen hogeita zazpigarren xedapen gehigarria; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 legearen 31.5 eta 32 artikulua; bai eta abenduaren 26ko Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko 53/1984 Legearen 5. eta 6. artikulua ere.

Toki-Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 21.1 artikulua a) eta f) letren bidez ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

Lehena. Bere kargua betetzeko ordainpeko arduraldia ematea udal-gobernu taldeko Zerbitzu Publikoetako zinegotzi-ordezkaritari. Hauek izango dira kargu publikoak jaso beharko dituen ordainsariak:

- Urko Lazkoz Fernandes: Zerbitzu Publikoetako zinegotzi-delegatua.
- Arduraldi osoa, % 100ean.
- Urteko ordainsari gordina: 40.063,70 euro.
- Noiztik aurrera: 2025eko azaroaren 12tik aurrera (egun hori barne).

Gastu hori Hernaniko Udalaren aurrekontuko partida honen kontura kontabilizatuko da:

1 01.100.01.912.00 «Gobernu organoen oinarritzko ordainketak eta bestelako ordainsariak».

Bigarrena. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean Urko Lazkoz Fernandes en afiliazioa eta alta eskatzea. Udalak hartuko ditu bere gain Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorren enpresei beren zerbitzura lan egiten duten langileen gainean ezarritako betebeharrak.

Hirugarrena. Ordainpeko arduraldia kentzea Lourdes López Gorrochateguri.

Laugarrena. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean Lourdes López Gorrochategui en afiliazioa eta alta Hernaniko Udalean kentzeko eskatzea 2025eko azaroaren 20tik aurrera (azaroaren 21ean ez da altako egoeran egongo).

Bosgarrena. Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Seigarrena. Bi erabaki hauen berri Udaltzari ematea egingo duen hurrengo osoko bilkuran.

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkateak agindu eta sinatu du, eta neuk, Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa udal idazkaria naizenez, ziurtatu egin dut.

Gudarien plaza 1 · 943 337 000 · hhz@hernani.eus

EKS | CSV: ESKU6147dbb8-f43e-4997-8ba3-5c3c89b371f2



Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=04010>